


Galdu  
zaitez

# ARABAN

Barraskillo  
eta Perretxin ekin



Arabako Foru Aldondia  
Diputación Foral de Alava

alava  
turismo  
eus

## ZENBAT DAKIZU ARABARI BURUZ?

Ze kirolan egin dezakezu igeriketa, korrika eta bizikletan ibili, konpetizio berdinenan?

- Saskibaloia
- Triatloia
- Petanka

Zein pertsonaia mitologiko ikus dezakegu Gorbeialdeko mendietan?

- Basajaun
- Troll
- Orko

Aiaraldean kanta oso ezaguna konposatu zen. Entzun eta esan nor den protagonista.

- Patxi
- Mariburu
- Jon

Gasteizera inauterietan urtero gizon batzuk iristen dira. Entzun kanta jakiteko nortzuk diren.

- Margolariak
- Igeltseroak
- Mekanikariak

Arabako armarririk animalia bat eta gaztelu bat dauka. Zein animalia da?

- Leoia
- Elefantea
- Saguzarra

Zalduondon, Lautadan, zer ateratzen da hango iturritik urtean behin?

- Ardoa
- Laranja zukua
- Muztio

Nola deitzen da trikuharrietako ospakizuma?

- Akelarre
- Inauteriak
- Gabonak

Gozotegietan eta basoetako lurretan aurki daiteke.

- Trufa
- Bonboiak
- Goxokiak

Turismo familiarri buruz informazio gehiago [www.alavaturismo.eus](http://www.alavaturismo.eus) webgunean



LEO-DI-VISOR

## KANPEZUKO-ARABAKO MENDIALDEA

Haran eta mendi txikiez inguratutako Erdi Aroko hiribilduak eta herri politak aurkituko dituzu. Mendialdea bisitatzeko berebiziko edertasuna daukan ingurune batera sartuko zara, eta kirol eta kultura jarduerak askoz gozatu ahalko duzu.

### 16 Izki Parke Naturala

Mendialdearen bihotzean dago. Gal zaitzez mendi ibilaldi, ur jauzi, baso eta zuhaitz berezien artean!... Udazkenean perretxikoak nahi badituzu jan, Perretxin laguna ez hartu, bakea eman.

### 17 Antioñako harresiak eta eztiaren azoka

Etor zaitzez eta ezagutu Erdi Aroko eraikitako herria. Gelditu hango harresi eta ateetan, garai hartako bazina legez. Udaberriean, ezagutu ezti azoka: hostu eta hasten bazara ezulka, berehala osatuko zara esnea eta ezti hartuta.

### 18 Vasco Navarro bernbidearen ibilbide berdea

Antzina tren bat igarotzen zen handik, Gipuzkoatik atera eta Nafarroara iristen zen, tunelak eta probintziako herriak zeharkatzen zituelarik. Bide hau egin dezakezu bizikletaz, behingoz ahaztuta autoen beldurraz.

## BIASTERI-ARABAKO ERRIOXA

Arabako hegoaldean dago eta Ebro ibaiak ureztatzen du. Mahastiek apaindutako hango paisaiez eta Erdi Aroko herriez gozatu ahalko duzu; baita ardoaren gaineko guztia ikasi ere.

### 19 Ardoaren Erakustokia

Heiduen edaria da ardoa, baina Guardian dagoen erakustoki honek deskubritzeko dauzkaten esperientziak eskaintzen dizkie haurrei ere. Zerbait nahi baduzu hartu, muztio batekin beharko duzu konformatu.

### 20 Erdi Aroko herriak

Bazen garai bat ingurune honetako herriek eraso eta guduetatik babestu behar zutena. Guardian eta Labrazan, inguratu harresi-dorreak eta utzi irudimenari hegatu.

### 21 Guardiako urmael zeltiberiarra

Duela urte asko, txorrotarik ez zegoenean, ura urmaletan gordetzen zen herrietan. Zeltiberiarren eraikin, Arabako historia ahalko duzu jakin.

## AIARA

Nagusiek belaunaldi berriei helarazi dizkien historia eta berezko ohiturak ditu Aiaraldeak. Natura ingurumen ederrak ematen duen lasaitasuna sentitu ahalko duzu hemen; baita ingurune honetako kultura eta herri politik ezagutu ere.

### 1 Artzniegako Etnografia Museoa

Behin ume batek arotza izan nahi zuela amets egin zuen, beste ume batek eltzegilea izan nahi zuela. Museo honetan antzinako lanbideetan erabiltzen ziren tresnak gordetzen dira. Eta zuk, zer izan nahi duzu nagusitan?

### 2 Begiratokia eta Nerbioi ibaiaren jauzia

Badakizu zein den uraren zikloa? Badakizu nola jaiotzen diren ibaiak? Liluratu zaitzez Nerbioi ibaiaren sorgune den eta itsasoan lurrun bihurtzen den ur jauzi honekin.

### 3 Santxotena museoa

Artzniegan dago Xabier Santxotenaren museo lantegia. Ingurune horretatik igarotzen zarenean, hurbildu zaitzez museora eskultore horren lanak ezagutzera.

## AÑANA

Arabako hego ekialdean dago Añanako Kuadrilla, eta toki honek natura eskaintzen dizu oinez edo bizikletaz ibiltzeko, paisaia paregabeak dira-eta ikusteko eta ikusmena alaitzeko. Eta hori guztia familian gozatzeko.

### 4 Añanako Gatz Harana

Txanponik eta billetek ez zegoenean, gatz erabiltzen zen gauzak erosteko. Jakizu nola lortzen zen gatz haran honetan. Topatzen badituzu gauza zuri bi gatz eta azukrea bereizi.

### 5 Santa Katalina lorategi botanikoa

Lehen komentua zen eta orain lorategia, landareen espezie mordoak daukana. Irribarez jarriko zaitu landareen usainak; gaez bazoaz, izarren argiri beha altxatuko dituzu bekainak.

### 6 Sobrongo abentura parkea

Eskalada, kayak, arku tiroa... Jarduera mordoak, familiarekin gozatu eta ongi pasatzeko. Jarduera guztietara nahi baduzu igo, ondo babestu, amigo.



## VITORIA-GASTEIZ

Euskadiko eta Arabako hiriburua dago kuadrilla honetan, zeina probintziaren erdian baitago. Halere, hiriaz gain ezagutzea merezi duten beste herri polit batzuk ere badaude.

### 7 Hiria

Ibilaldiak egin daitezke bizikletaz eraztun berdean zehar, eta Erdi Aroko herrigunea, museoak eta horma irudiak bisitatzeko aukera dago... Muinoak dauka almendra ibura; igo, eta esperientzia mordoak eskura.

### 8 Kirol jarduerak

Alavés futbolearen eta Baskonia eta Araski saskibaloian. Telebistan ikustetik ezagutuko dituzu. Triatloia, izotz irristaketa, pilota, ... hirian ezagutu eta ikasteko nahi beste kirol dago-ta.

### 9 Eraztun berdea

Ibaiak eta errekek, hezeguneak, soro arteko baso-irriak eta Arabako Lautadako herrixkak aurkituko dituzu Eraztun berdeko parkeetan barrena paseatuz gero. Bizikletaz, patinez edo oinez egin dezakezu paseoa.

## GORBEIALDEA

Kuadrilla hau Gorbeia eta Urkiolako parkeek inguratzen dute. Jarduera mordoak egin ahalko duzu, natura ezagutzeko ingurune paregabean.

### 13 Gorbeia Parke Naturala

Parke naturalean dago Arabako mendirik garaiena. Gauza mordoak dago egiteko. Lagunak nahi badituzu harritu eta aztoratu, mendizale baten moduan egin ezazu gora.

### 14 Urtegiak

Bi urtegi artifizial daude, bizikleta erreiez eta bainatzeko hondartza ederrez inguratuta. Udako egun batean nahi baduzu urtegi osoa miretsi, ekin kanoa arraunari eta ez etsi.

### 15 Gaztandegiak

Duela urte asko gizon batek ahuntza etxekotu zuen eta konturatu zen esnea gogortu egin zitekeela eta gazta bihurtu. Historia xeheago jakin nahi baduzu, are jectzen ikusi, gaztandegi batera beharko zara iritsi.

## ARABAKO LAUTADA

Lautada beti izan da bidegurutzea. Hortaz, bide politetan zehar ibili ahalko zara haren balio historikoa eta gastronomia aparta ezagutzeko.

### 16 Trikuharriak

Trikuharriak ez dira solik Asterixen komikietan ateratzen. Lautadan haletarik hainbat aurkitu ahalko duzu. Ezagutzen dituzu Cromagnon eta Homo sapiens? Nahikoa da gogo amirri bat jartzea, ondo dator-eta historia apur bat ikastea.

### 11 Garaio urtegia eta Mendixur parkea

Garaloko hondartzatik hurbil Mendixurko ornitologia parkea dago, non hegazti mordoak aurkituko duzun behatzeko. Ikusi baino ez, ordea, ez da bidezko duten sosegua haustea.

### 12 San Adriango tunela

Aizkorri-Aratzeko parkean dago, eta tunelaren barruan bide bat zabaltzen da zeina duela ehunka urte Santiago de Compostelarentz zihon jendeak zeharkatu zuen. Geografian ona izaki, aldameneko probintzia ezagutuko duzu bai.



Diselmu eta ilustrazioak Alain Larreina